

...eta
Kittoa!

2018-11-9

1045 zkia.

Kokojanzteko irrikitan!

7 ANOS
GARANTIA
KIA



10
EGUN
KIA

ESKAINZA
EZIN HOBEAK
Otsailaren
8tik 19ra



The Power to Surprise

NAIA CAR

Barrío Apalategui, s/n
20600 Eibar. Guipúzcoa
Tel.: 943 70 70 33
www.naiacar.com

Aprobetxatu Kia-ren 10 Egunak. Deskubritu egizu, Kia gama guztian, teknologian puntakoena prezio ezin hobean.

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 1,3-7,6. CO₂ emisioak (g/km): 29-177. *Kia garantia manuala kontsultatu.

Kontsultatu promozioaren baldintzak eta betebeharrak Kia kontzesionarioen sarean eta www.kia.com-ean. Eskaintza baliogarria 2018/02/08 eta 2018/02/19 tarteko aldira. *Kia garantia manuala kontsultatu.



IV. GILDA LEHIAKETA 2018

IV. Gilda Lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan antolatu duen IV. Gilda Lehiaketan izena eman nahi duten tabernek, otsailaren 14ra arte izango dute horretarako aukera. Aurten **martxoaren 7, 8 eta 9an** egingo da lehiaketa, eta iaz moduan sari bi izango ditu: epaimahaiarena (150€) eta herritarrena (150€). Herritarrek botoa eman ahal izateko bozketa-kutxak izango dira tabernetan, eta botoa ematen duten herritarren artean bi pertsonentzat menu berezia zozketatuko da. Aurtengo epaimahaia Mireia Alonso, Iosu Mugerza, Josu Gimenez eta Ruben Etxanizek osatuko dute. Iaz 24 tabernek hartu zuten parte lehiaketan; epaimahaiaren saria Maixak eraman zuen, eta herritarrena berriz, Bar Nuevok.



✓ Taberna bakoitzak **GILDA BAKARRA** aurkeztuko du.

✓ Aurkeztuko den gilda ...eta kitto!k emandako **TXARTELAREKIN IDENTIFIKATUKO** da eta, asko jota, **EURO BATEN** salduko da.

✓ Izena emateko azkeneko eguna: **OTSAILAK 14.**

✓ Parte-hartzaileek **GILDAREN ARGAZKIA** ...eta kitto!ra bidaliko dute **OTSAILAREN 21erako**, whatsapp-ez (**605 71 14 22**) edo email-ez (komunikabideak@etakitto.eus)

SARIAK:

- 1) Epaimahaiaren saria: **150€**
- 2) Herritarren saria: **150€**

EPAIA: Martxoaren 16an jakinaraziko da. Harremanetarako deitu **943200918** telefonora.

Antolatzailea



Euskara Elkarteak

Laguntzaileak





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAJA.- Itxura oneko emakumea, jatorra. "Zuen alaba gaztiena oso majia da".

MAJO.- Itxura oneko gizonezkoa, jatorra. "Ondo majua da topau daben nobixua".
Ondo, ederto. "Majo zabiz zu nere pekora, ezer falta ez jatzula".

astean esanak

"Abertzaleok mitoetatik bizi garela esaten da beti, baina Estatu moderno guztiak bizi dira mitoetatik. Euskaldunok Aitorren semeak edo Tubalenak omen gara, eta guk badakigu hori ipuina dela, baina Estatuak ere beti mitologizatu egiten du bere sorrera. Asko dibertitzen gara Asterix eta Obeliken istorioak irakurtzen, baina inor gutxi konturatzen da nazionalismo frantsesaren apologia direla, eta nazionalismoaren irudi perfektuak ere bai, zeren nazionalismoa ezkutatu gelditzen da. Asterixek eta Obelixek arraza galiarraren bertute eta dohainak inkarnatzen dituzte.

Erromatarrek eraso egiten diote Galiari, baina Historian alderantziz izan da: Frantziak egin izan dio beti eraso inguru guztiari. Hala ere, mitoak askotan positiboak izan dira: adibidez, behialako euskaldunek bere burua noble izendatu zutenean, lagun guztiak nobleak direla deklaritzen duten momentuan nobleasuna desegin egiten da, zeren denak nobleak diren tokian inor ez da noble. Bestalde, ez gaude mestizajearen kontra; gertatzen dena da handiak ez direla inoiz txikiekin mestizatzen. Azkenean, arrain handiak txikia jaten du"

(JOXE AZURMENDI, FILOSOFOA ETA IDAZLEA)

"Gaur egun memelotzat jotzen dugu duenarekin konformatzen dena, asko badu ere. Araua ez da irabaztea, ez asko, ezta nahikoa ere, baizik eta gehiago irabaztea; horren truke eguraldi gorriak igaro behar badira ere. Realetik Athletic-era joan denak askatasun guztia du bere bizitzarekin nahi duena egiteko; beste gauza bat da horrelako ostikada jotzea euskarari. Baina, zergatik ez diogu gure buruari galdetzen nondik datorkion foballeko jendeari handiki alferraundiaren arinkeriarekin modu zantarrean diru eta ondare publikoak erabiltzeko eskubide hori? Nahierara jokatzeko horrek triskantzarako bidea ematen du"

(RAMON ETXEZARRETA, IDAZLEA)



IKER ARANBERRI

Kodizia

Zer nahi eta hura eman; hala ere, mutikoa gelditzen da triste baino tristeago. Hala zioen Sen taldeak 2000. urtean. Dutena baino gehiago lortuta ere asetzen ez diren gizartean bizi gara. Kodizia da? Anbizioa? Onartua dugu gehiago hobea dela. Eguberriak iragan diren garai honetan, une aproposa izan daiteke jakiteko oparitan jaso edo geuretzat erosi ditugun gauza horietatik zenbat erabiltzen ditugun, hilabete eskas pasata. Tolstoik kodiziaren inguruko ipuin eder bat idatzi zuen: 'Zenbat lur behar ditu gizon batek?'. Giza anbizioaren inguruko parabola zoragarria da. Pajom izeneko nekazariak anbizio bat dauka: ahalik eta lur-eremu handienaren jabe izatea. Urruneko eskualde bateko biztanleek egun bakarrean pertsona batek oinez ibil dezakeen lur-zabalera guztia oparitzen dutela jakinda, bertara joango da, lur gehiagoren jabe izateko desiraz. [spoiler] Hainbestekoa da, ordea, bere kodizia, gorputzak ezin diola esfortzuarri erantzun eta erronka amaitzearekin batera emango du Pajomek bere azken hatsa. Azkenean, bi metro luze eta metro bana zabal-sakon den zulo batean lurperatuko dute Pajom. Eta horixe da, hain justu, pertsona batek behar duen lur kopurua, bere gorpua lurperatzeko adinakoa. Ez ote gaitu gure kodiziak ere galbidera eramango? Ez ote gaitu gure anbizioak lurperatuko? Itzulerarik gabeko puntura iristear gaudela iruditzen zait askotan.

“Adimen emozionala” ikastarua ‘Gurasoak Martxanekin’

Udalak eskola-adiñeko ikaslien gurasuendako antolatzen daben “Gurasoak Martxan” programaren eskutik “Adimen emozionala” ikastarua eskinduko dabe hiru saiotan, otsaillaren 21 eta 28xan eta martxuaren 7xan. Ikastarua Haur eta Lehen Hezkuntzako ikaslien gurasuendako izango da eta, bestiak beste, famelixaren eginkizunak, nortasunaren garapena, ni-a eta autoestimua, komunikaziñua zelan erraztu, arauak, mugak, sarixak eta zigorrak, emozioñuak ulertu eta kudeatzia, egoera gatzak kudeatzia (beldurrak, guzurak) eta baliabide emozionalak (jolasak, ipuiñak) moduko gaixak landuko ditue. Hiru saiuak Portalean (bigarren pisuan) izango dira, 18:30xetatik 20:30xetara, eta gazteleraz emongo dittu Gipuzkoako Ikaslien Gurasuen Federaziñoko Garbiñe Arrizabalagak (*argazkian*). Ikastaruan parte hartzia libria da, baiña interesa izanez gero ikastetxian bertan izena emoteko eskatzen dabe edo, nahixago izanez gero, ikastetxe bakotxeko guraso-alkartera edo gizartekintza@eibar.eus helbidera idatzi leike. Programa beraren baitan, bestalde, aste honetan “Komunikaziñua nerabezaroan” hitzaldixa emon eben DBH-ko ikaslien gurasuendako.



pieza jasotzen daben Armagintza Museuaren katalogo digitalaren euskerazko bersiñua aurkeztuko dabe hillaren 22xan. Bildutako horrek egun museuan ikusi leikiazen armak dira, baiña biltegitan gordeta daguazanak batuz gero, 1.000 piezatik gorako funtsa daka 11 urte bete barri dittuan museuak.

Saratsuegi/Iparragirreko irisgarritasuna hobetuko dabe

EH Bilduk eta EAJ-PNVk azken hillabetietan emondako bultzadari esker, Saratsuegiko bizilagunak euren kalerako aspaldidanik eskatzen dabizen hobekuntzak gauzatu egingo dirala emon dabe aditzera aittatutako talde bixak. Idatziz azaldu dabena araber, “2016ko martxuan, premiña horrerri erantzuteko, bai EH Bilduk bai EAJ-PNVk udal aurrekontuari zuzenketak aurkeztu zetsazen. PSOEk zuzenketak onartu zittuan eta hi-

ru alderdixak erdibideko emendakiña adostu genduan. Horren araber, Iparragirre eta Sautsira sarbideko hobekuntza eta pabimentaziño projektua aurrera eruatia adostu zan”. 2017ko amaieran, EAJ-PNV eta EH Bilduk alkarlanian kreditu aldaketia egitteko eskaeriak eraginda, 185.000 euroko partida bat bideratu zan aittatutako projektua gauzatzeko.

Baiña denporiak aurrera egi-tten ebala eta projektua garatze-

ko pausorik emoten ez zala ikusitta, EH Bilduk eta EAJ-PNVk proiektuaren gidaritza hartu ebela diñu: “Talde bixen proposamena aho batez onartu eban korporaziñuak iazko urrian egingako plenuan. Otsailleko lehen astian amaittu da projektua gauzatzeko eskintzak jasotzeko epia”. Gauzak holan, hobekuntzak egitteko biharrak laster hastia espero dabe. Proiektuak jasotzen dabenaren araber, oiñezkuendako irisgarritasuna errazteko asmuarekin, kale bixen arteko loturia hobetuko dabe. Horrekin batera, autopistaren azpitan dagan aparkalekua atondu eta 20 automobilendako tokixa preparauko dabe eta inguru horretako argiterixa be barrizatuko dabe. Biharrak biribiltzeko, seiñalizaziñua moldatu eta lorak ipiñiko dittue inguru apaintzen. Biharrak 12 aste ko epian amaittu bihar dittue.



Aukeratu dabe Martxoaren 8ko irudixa izango dan kartela

Jone Bengoa Uriaren kartelak irabazi dau Martxoaren 8rako irudixa aukeratzeko Udaleko Berdintasun Batzordiak antolatutako kartel lehiaketia. Aurten kartelarendako gaixa "Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara" izan da eta, epaimahaixa osatu dabenen ustez, irabazliak hori primeran islatzen jakin dau. Sari-banaketa ekitaldixa martxoaren 13an izango da, 18:30xetan, Portaleko erakusketa gela. Sarixa banatziarekin batera, lehiaketara aurkeztu dittuen kartelen erakusketia inaugurauko dabe. Portaleko erakusketa aretuan egongo da lanak ikusteko auke-



ria, martxoaren 28ra arte. Eta irabazliari sarixa emon eta erakusketia zabaldu eta gero, 19:00etan, "Izan direlako gara; emakumeen ekarpenak jasotzeko proiektuak: Wikiemakume@k eta Gure Genealogia Feministak" izenburuko hitzaldixa hasiko da Portalean bertan, areto nagusian.

autuan

1948-XAN JAIXOTAKUEN BILLERIA

Urte horretan jaixotakueri dei egin nahi detse, otsaillaren 12xan (astelehenian) Kamarroak soziedadian 20:00etan egingo dan billerara juan deixen, aurten 70 urte beteko dittuela eta, hori ospatzeko antolatuko daben programia preparatzen juateko.

INMIGRAZIÑO ERDI MAILLAKO TEKNIKARI LANPOSTUA

Udalian Inmigraziñoko erdi mailako teknikari lanpostua lehiaketa-oposiziño askearen jardunbidez betetzeko deialdixaren oiñarrixak kaleratu dittue eta eskaeriak aurkezteko epia otsaillaren 22ra artekoa da. Informaziño gehixagorako eibar.eus helbidian begiratu.

KANTABRIAKO ETXEKUEN URTEKO BATZARRA

Eibarko Kantabriako Etxeko bazkidiak martxuaren 4an egingo dabe urteko batzarra, alkartiak Jardinetan dakan lokalian. Lehen deialdixa 11:30xetarako egin dabe eta bigarrena, barriz, 12:00xetarako. Alkartiari lotutako kontuez jardungo dabela eta, ahal izanez gero mesedez batzarrera juateko eskatzen detse bazkidieri.



Pepe Txikiena hil da Allarizen

Jose Prieto, Eibarren gehixenok Pepe Txikiena izenarekin ezagutzen genduana, azken urtiotan bi-zi izan dan Ourenseko Allariz herrixan hil zan aurreko astian. Bere gurasuak aspaldi Txikiena tabernia euki ze- ben Isasi kalia eta berak Solac enpresian egin ze- ban biharra, Gasteizera juan aurretik. Jubilaziñora hel- du zanian Allarizera juan zan, gurasuengana. Herriko komunikabidietan kolaboratu izan dau askotan, batez be Eibar Rebigian eta El Diario Vasco-n, eta ospia har- tu ze- ben bere txiste grafikuak "Dejadas al 11" saiuan.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	




JAIME MAKAZAGA LARRAÑAGA
 (2. urteurrena: 2016-II-10)

*Urte bi dira jada
 jun ein ziñala
 tristura ta samiña
 utzi zenigula
 aurrera goiaz baiña
 nahi zendun bezala!
 Maitxe zaitxugu Jaime
 zuk merezi hala.*



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Udal aurrekontua otsailleko hirugarren astian onartzia espero da

Miguel de los Toyos alkatiak aurreko astian, barixakuan emondako prentsaurrekuan azaldutakuaren arabera, 2018. udal aurrekontua onartzeko pleno berezixa "otsailleko hirugarren astera" deitzeko moduan izatia espero dabe. Adierazi ebanez, gobernu taldiak beste alderdixekin aurrekontuaren inguruan negoziatzeko billerak amaitutzat emon dittue eta, EAJ-PNV alderdixarekin ados ipiñi eta hitzarmena siñatzia lortu dabela eta pozik azaldu zan: *"Beti ahalegintzen gara talde guztiekin ados ipintzen, baiña batzuetan ez da posible izaten. Halanda be, jeltzaliak emongo daben aldeko botuari esker, aurtengo udal aurrekontua aldeko 15 bozkarekin onartuko dogu. Guztira 21 bozka dirala kontuan izanda, presupuestuak babes haundixa eukiko dau"*. Eibarko EH Bilduk eta Irabazik, barriz, plenuan kontrako botua emongo dabela aurreratu dabe.



Hiru egunetako ekitaldixak antolatu dittue Untzagako jubilauek

Datorren asterako hainbat jarduera berezi preparamu dittue Untzagako jubilauek. Martitzenian, Aratostiak ospatzeko, 17:00etatik aurrera "photocalla" ipiñiko dabe beheko pisuko aretuan, nahi dabenak argazkixa egitteko (bardin detsa koko-jantzitta jua ala ez). Ordu bete geruago, 18:00etan, oin dala gitxi 105 urte bete dittuan Isabel Barambio omenduko dabe eta, ondoren, koko-jantzi lehiaketia eta dantzaldixa egingo dittue (onenendako sarixak egongo dira). Eta eguna agurtzeko beste lehiaketa bat antolatu dabe, pella eta torrada onenak zeinek egitten dittuan aukeratzeko.

Eguaztenian, barriz, San Balentin ospatuko dabe: 17:30etan Untzagako jubilauek gitarrataldixak emanaldixa eskinduko dau eta 18:00etan txokolatia jango dabe. Gaiñera, oparixak banatuko dittue eta bazkidiaren artian ezkondata urte gehixen daroian bikotiar omenaldixa egingo detse. Eta eguenian jaiak albo batera lagako dittue, interes haundixa dakan pensioen gaixari heltzeko: 11:00etatik aurrera "Pensiones dignas" izenburuko hitzaldixa emongo dau EHUKo irakasle ohia eta gaixan aditua dan Mikel Lafuente (nahi daben guztixak izango dau sartzeko aukeria; jubilauek 2. pisuan izango da).

Sanblasak bedeinkatzeko ohitturia bete dabe askok aurten be

Gure herrixan gehixen maitte dogun jaixetako bat da San Blas eta, aurten be, santuari izena zor detsen opillak, horrek batzeko zapixak eta zinttak elizara bedeinkatzera eruan zittuen eibartar askok, holan euren eztarrixak babesten dittuela siñestuta. Ondo errotuta dagan ohitturia da eta lehen bakarrik Santa Ines ermittan bedeinkatzen ziran sanblasak. Gaur egunian, baiña, herriko eliza guztietan egoten da bedeinkatzeko aukeria.



Azittaiñen sanblasekin.

UniEncounter topaketiak 28 ordu beteko ditte jarraixan

UNI Eibar-Ermua ikastetxeko ikasle-irakaslien eta ikasle-ohien ekimenez UniEncounter, teknologixa barrixen inguruko ekimena egingo da asteburuan. Preparau daben programaziñua gaur arratsaldian hasi eta zapatu illuntzean amaittuko da eta, antolatzailien berbetan, "28 ordu iraungo daben 'LAN party' bat izango da, dana jarraixan. Hainbat hitzaldi 'serixo' eskinduko dira, baiña eSport izenekuekin zein mahai jokuekin tartekatuko dittugu. Hortaz, ekitaldixak gaztiendako (batez be zapatu goizian) zein nagusixendako aproposak eta erakargarrixak izango dira". UniEncounter XIV.aren aurkezpenarekin ekingo detse egitarauari, gaur 16:00etan. Ordu horretan hasiko dira izen-emotiak eta, ordubete geruago, WordPress programari buruzko hitzaldixa emongo dabe eta, aldi berian, hainbat jokoren txapelketak abiatuko dittue. Bixarko programia, barriz, ondo beteta egongo



da. Bestiak beste, web orrixak diseinatzeko lehiaketia, koko-jantziz lehiaketia, hainbat jokoren txapelketak, hitzaldixak eta sari-banaketia egingo dira. Informaziño gehixagorako uniencounter.uni.eus helbidian begiratu.

Herriko taldiak santaeskian ibilli ziran domekan

Santa Ageda bezperia zala eta, domekan santaeskian ibilli ziran Eibarko hainbat talde. ...eta kitto! Eus-kara Elkartekuak egindako gonbidapenari erantzun zetsenak eguardixan urten eben, alkartiaren lokalian pixkation ensaiatzen ibilli eta gero. Urkizutik Ibarkurutzerañoko tartian jardun eben kalejiran, koplak kantatzen, eta amaitzeko atzera be ...eta kitto!-ra bueltau ziran, txokolatia jatera. Eibar Sarek, barriz, Legarreko frontoian ekin zetsan kantu-kalejirari, Txirixo alkartera aillergau eta han bazkaltzeko. Eta

Untzagako jubilauren abesbatzak be eguardixan jardun eban santaeskian, gero alkarrekin bazkarixa egitteko. Illuntzian, barriz, Sostoa abesbatzaren txanda izan zan: Ego-Gain kaliañ hasi eben kalejira eta Urkizurairiño jaitsi ziran kantuan, betiko moduan Edozer alkartian afari-merienda eginda egunari agur esateko. Lau taldien kalejiretan argazkixak etaratziaz gain, talde bakotxaren bideoak be grabau dittugu oinguan, etakitto.eus orrixan, MEDIATEKA atalian ikusgai ipiñi eta zeuek ikusi eta entzun ahal izateko.



...eta kitto!, Sare, Untzagako Jubilatua eta Sostoa santaeskian ibilli ziran domekan. Maialen Belaustegi

Alfako 51 bihargiñen kaleratzia negoziatzen hasi dira

Luzaruan zain egon eta gero, ondo kostata, aurreko barixakuan jaso eben bihargiñen ordezkariak enpresako zuzendariak abenduan merkataritza-epaitegixan aurkeztutako eta 134 bihargiñeri eragiten detsen kaleratze-espeditiari buruzko dokumentaziñua. Martitzenian egin zan horren inguruan berba egitteko lehen billeria eta, jakin dogunez, espeditia bittan zati-


ttu dabe. Horren arabera, dokumentaziñua entregatziakin batera zabaldu dan alegaziño eta bestelakuendako epia amaitzian (hillebete inguru kalkulatzen dabe bihargiñak) espeditia onartzen badabe, zuzenian 51 bihargin kaleratuko dittue. Espeditiaren bigarren zatixan daguaz beste 83 bihargiñak, barriz, aurtengo udan kaleratzia dago aurreikusita.



Artea modu naturalean bizi zen giroan jaioa, José Ibarrolak txikitan ez zeukan argi artista izan nahi zuen ala ez. *“Baina denbora kontua zen artearen sarean jaustea”*. ‘Cuestión de tiempo’ erakusketa irekiko du gaur Ibarrolak Portalean eta Quatroccentora eramango gaitu hilabete honetan begirada garaikide batekin. Eskultura eta margolaritza hizkuntza berean fusionatu ditu, margoei itxura eskultorikoa eman eta kontzeptu piktorikoak hiru dimentsiotara eramanez.

- 1.400 eta 1.500 urte artera joan zara ‘Cuestión de Tiempo’ erakusketarekin. Zerk eraman zaitu sasoi horretara?

Hainbat arrazoi daude, baina batez ere artearen munduan momentu nahasiak bizi ditugulako. Pentsatzen dut ez daukagula argi arteak zertarako balio duen eta artea nola egiten den. Galdera handiak etortzen zaizkit burura: zertarako gaude, nondik gatoz, zer gara... Erantzun ezin diren galdera horiek artean ere egokiak dira, aurrera egiten uzten dutelako. Kezka, zalan-tza eta nahasmen sentsazioa dago; artistek ez dituzte objektu artistikoak lantzen, obra kontzeptualak egiten dituzte; eta eskuekin lan egitea galtzen ari gara. Horrekin galtzen ari garena irabazten duguna baino garrantzitsuagoa da nire iritziz. Horren inguruan egin dut gogoeta eta horregatik joan naiz Quatroccentora. Erdi-Aro gogor eta ortodoxoa eta gero, gauzak beraurkitzeko (Grezia klasikoari begira) eta aurkitzeko (norbanakoaren kontzeptua jaiotzen da) aroa izan zen Berpizkundea. Sasoi hartan gertatzen zena aztertu dut,



JOSE IBARROLA (artista):

“Arte garaikideak publikoa baztertu du artearen ekuaziotik”

gaur egun bezala orduan ere aurreko galdereri erantzun behar izan zielako.

- Nola berrinterpretatu dituzu sasoi horretako lanak?

Eskultura eta margolaritza lengoia berean fusionatu nahi nituen. Margoei itxura eskultorikoa eman diet, eta alderantziz, kontzeptu piktorikoak hiru dimentsiotara eraman ditut. Artistak sailkatzeko joera dago. Margolaria edo eskultorea zara, baina nik ez dut horretan sinesten eta Berpizkundea aldarrikatzen dut. Artistak egile politeknikoak bezala ezagutzen ziren eta neure burua horrela ikusten dut. Berdin dit zein teknika erabili gauzak egiteko.

- Nola erabakitzen duzu zein teknika erabili?

Batzuetan hortik abiatzen zara, hasieratik teknika zehaztuta; eta beste batzuetan alderantziz, teknika batekin hasi eta bestera jotzen duzu.

- Zer bilatu duzu lan horien berrinterpretazioarekin?

Begirada garaikidea eman nahi izan diet lan famatu horiei. Itxuraz klasikoak dira, baina gaur egungo kodea eman diet. Denetarik materialak erabili ditut eta ez daude arau zorrotzei lotuta. Margotzeak ema-

ten duen gozamina aurkitu dut berriz lan honekin. Eskulana aldarrikatzen dut, akatsa erreibindikatzen dudalako. Huts egitea garrantzitsua da ikasi ahal izateko eta zure kabuz sortzen duzunean konturatzen zara horretaz. Nire margoetan akatsak ikustarazten ditut, nortasuna ematen dielako. Eskulturekin ere antzera, mozketak igartztea gustatzen zait. Horrek izugarriko energia dauka.

- Denbora aurrera doa eta artelanak iraun egiten dute. Denbora gelditu egiten da artelanetan?

Ezetz uste dut. Ikusleak amaitzen du artelana. Arte garaikideak publikoa baztertu du artearen ekuaziotik. Ez du axola egindakoa ulertzea edo gustatzea, norberarentzat egiten dira artelanak, eta ni horren kontra nago. Publikoak ezin du baldintzatu, baina existitu behar da. 2018 urteko begiekin 1418ko lan bat ikusten baduzu, ez daukazu sasoi hartako datu eta pertzepziorik, eta oso modu ezberdinean irakurriko duzu obra hori. Ez genuke jakingo orduko sinbolo gehienak interpretatzen. Erakusketa honetan alde sinbolikoa eta elementu erlijiosoak kendu ditut eta funtsezkoarekin geratu naiz.



Aurreko asteburuan hasitako jaiak bete-betean harrapatuko gaituzte asteburu honetan, martitzenera arte liraungo duen jai-egitarauarekin. Gurean ohikoa denez, aurreko zapatuan Koko-dantzak goiz-goizetik abiatu ziren, Merkatu Plaza bisitatu eta Mandiola eta Aginaga auzoetako baserrietara joateko. Arratsaldean ez ziren falta izan herriko erdialdeko kaleetan, eguraldiari aurre eginez, dantzak eta giro bikaina. Atzoko eskoletako kalejirak bertan behera geratu ziren eguraldi kaskarrarengatik. Ea eguzki pixka bat dugun!

Aukeratu duzu koko-jantzia?

Gaurko egitaraua 20:00-etan hasiko da, Urkizun hasita Untzagaraino Kaldereroek egingo duten kalejirarekin. Besteak beste, Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! euskara Elkartea, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Lagun Taldea, Untzagako jubilatuen abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskolakoak izango dira parte hartzen. Untzagara ailegatzean, 20:30ean Kaldereroen abestiak eta dantzak eskainiko dituzte eta, jarraian, Aratoste Pregoia egingo dute. Afalostean parrandarako aukera izango da aurten, 23:00etatik aurrera Eirband taldeak kontzertua emango du-eta.

Aratoste zapatuko ekitaldiak eguerdian hasiko dira: San Kristobalگو Jai Batzordearen eskutik animazioa egongo da

karpan. Horrekin batera ardo dastaketa eta pintxoak eskainiko dituzte. 12:30etik 14:00-etara Rockalean taldearen emanaldia egingo da Untzagan eta ordu berean hasiko da Aratosteetako kuadrillen kalejira, Ustekabe fanfarreak lagunduta.

Arratsaldean, berriz, umeendako koko-jantzi lehiaketa egingo dute Galiziako Etxean (18:00etan) eta 18:30etik 20:30era umeendako berbena eskainiko du Alaiki taldeak Untzagan. Han bertan banatuko dituzte lehiaketetako sariak, 19:00etan. Horrez gain, 18:00etatik 20:00etara kalejiran ibiliko Brass Band taldea, Untzagatik hasita eta gauean dantzaldia eskainiko du Alaiki taldeak, 23:00etatik 02:00etara.

Aratoste Domekan, berriz, kalejira egingo du Usartza Txistulari Taldeak, 11:00etatik aurrera. Eta arratsaldeko 17:00etan, ...eta kitto! Euskara



Gaurko kaldereroek soinu jantziko dituzte gure kaleak. **Maialen**



Hotzari aurre egiteko koko-jantzia asmatu beharko da aurten. **Maialen**

Elkartek antolatuta umeendako Playback Lehiaketa egingo da Untzagako karpan, DJ Arnok girotuta.

Aratoste Martitzenerako beste batzuetan baino egitaraua beteagoa prestatu dute aurten: 17:00etatik 18:30era Untzagan umeendako jolasak egingo dira, Astixaren eskutik.

Jarraian, Hortzmuga antzerki taldeak eta trikitilariak lagunduko duten sardinaren entieru txikia ailegatuko da. Ondoren, umeendako diskoteka egongo da karpan, Arima Cool Tour taldearekin eta, horrekin batera, 7-11 urte bitarteko haurrek break dance erakustaldia egingo dute.

Amañako Aratoste bereziak

Amaña es la Caña-k antolatutako Aratosteak izango dira Amañan gaur, bihar, etzi eta martitzenean. Lau egun horietan arratsaldeko 17:00etan hasiko den egitaraua prestatu dute eta, horrez gain, domeka goizean, 11:00etan, Usartzako txistularien kalejira egingo dute. **Prestatutako egitaraua 28. orrialdeko agendan aurkitu dezakezue.**



Aurreko zapatu goizean koko-dantzek Merkatu Plaza bisitatu zuten. **Fernando Retolaza**



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Hiesa antzemateko proba

Kalkulatzan da Estatuan 145.000 lagun hiesak kutsatuta egon daitezkeela, eta hauetako %18 ez da horren jabe.

Egoera honek, pertsona hauek tratamendu egokirik ez jasotzea dakar eta birusa hedatzeko arriskua areagotzen du.

Arazo horri irtenbidea aurkitu nahian hiesa antzemateko frogak farmazietan, eta errezeta gabeko, saltzeko aukera onartu du orain dela egun gutxi Osasun Sailak.

Froga hau norberak etxean egin ahal du odol edo txistu lagin batekin eta emaitza 20 minutuan jasotzen da.

Emaitza positiboa den kasuetan frogaren fiabilitatea %99,5koa da, eta emaitza negatiboa denean %99,9koa. Hala ere, emaitza positiboa izandako kasuetan frogak errepikatzea gomendatzen da.

Kontuan izan behar da, baita ere, gure gorputza hiesaren birusaz kutsatzen denetik antzeman daitezkeen antigorputzak sortu arte bi eta zortzi aste epea pasa daitezkeela, eta beraz, epe horretan frogak negatiboa emango duela, nahiz eta gure gorputza birusaz kutsatuta egon.

Denok gutxienez bizitzan behin egin beharreko frogak bat izanik ere badaude frogak hau egiteko bereziki gomendatuta duten jende multzoak:

- Babes gabeko sexu harremanak izandakoak.
- Ezberdinen artean xiringak partekatutako jendea.
- Transmizio sexuarekin gaixotasunak pairatutako jendea.

Beraz, hiesa antzemateko frogak hemendik aurrera eskura izango duzue farmazietan 29 euro inguruko prezioarekin, albiste ona osasun publikoarentzat.

Krisian gaude?

Analisi azkarrak egiten ohituta gauden gizarte honetan, gure bikote-harremanari buruzko balorazio espresa egin beharko bagenu, funtsezko puntu batzuetan jarri beharko genuke arreta. Seinale horien bidez jakingo genuke egoera batek noiz amaitzen duen harreman txarra izaten. Zeintzuk dira krisiaren abisua ematen diguten sintomak? Zeure bikotekidearekin zaude-nan bizi dituzun sentimenduak.

- Segurtasuna vs Beldurra
- Lasaitasuna vs Haserrea
- Desioa vs Arbuioa
- Poza vs Tristura
- Askatasuna vs Dependentsia

Begibistakoa da ez dela gauza bera zure bikotekideak zurengan puntu bakoitzaren lehengo sentimenduak edo bigarrenak eragitea. Bigarren zutabeko sentimenduak nagusi badira, ez dakigu bikotekidearekin egoten, edo ez pertsona horrekin, behintzat. Harreman osasun eta aberasgarri batean ez lego-ke bigarren zutabeko ezer egon behar; ez modu jarraituan. Badaude baloratu beharreko beste seinale batzuk ere: Nolako *Desioak* ditugun gure bikotekidearekiko. Eta horretaz hitz egiterakoan *Desio Sexual* ari naiz, "*nire bikotekidea niregana sexualki gerturatzea nahi dut ala ez*", baina baita

bere *Konpainiaren Desioak* ere, "*bera nirekin egotea nahi dut ala ez*".

Banaketa- eta *Fusio-* momentuak giza-harreman guztietan alternatu behar dira, harreman hori orekatzeko. Gauzak muturrera eramatea ez da sana eta *Banaketa* edo *Fusio* jarraituek ez dute harreman oso bat eraikitzen. Egoera bi hauetako bat modu jarraituan bilatzen badugu, bide onetik ez doan zerbait gertatzen ari da.

Azkenik, beste indikadore bat gure bikotekideak bizitzan lortzen dituen *Lorpenen* aurrean sentitzen duguna litzateke. Gogorra badirudi ere, triste jartzen gara zerbait txarto ateratzen zaionean? Edo burura etortzen zaiguna "*izorra dadila*" da...

Bere *Lorpenengatik* poztu gaitzke eta geureak moduan sentitu ditzakegu (batentzako

arantza
alvarez
SEXOLOGOA



ona dena bestearentzako ere ona da), edo inbidia, lehia sentimentua sor ditzakete guregan... Horrela bizi badugu, harremana oso kaltetua dago... Garratzasun eta amorru handia dago hor.

Indikadore horiek guztiak ez dira erabili behar harremana norabide batean ikusteko bako-rik; bikotekideak eragiten diguna, onerako edo txarrerako, guk berarengan sortarazten dugunaren isla da. Beste batekin egon nahi izateko dau- den arazoak ezagutzea funtsezkoa da, eta, aldi berean, gurekin zergatik egon nahi du- ten ere jakin behar dugu

IKUSTEKO: "BLUE VALENTINE"



EUSKARAREN TRANSMISIOA

VIII. mintegia

2018ko martxoak 7
asteazkena

Portalea Kultur etxea
EIBAR

- 08:45-09:00:** Akreditazio eta dokumentazioa.
- 09:00-09:15:** Ongietorria.
- 09:20-10:05:** *"Nerabezaroan euskarari eustea. Zerk finkatzen du transmisioa?"*.
Paula Kasares. UPNAko irakaslea.
- 10:10-10:35:** *"Arabarra, gaztea eta euskaltzalea... Bai! Eta zer?"*
Unai Viana. Arabako Gazte Euskaltzaleak taldeko kidea.
- 10:40-11:05:** *"KOMUNITATEA, euskara biziberritzeko ardatza erdal eremuko ikastetxe batean: Gasteizko Ramon Bajoko ekimena"*.
Leire Diaz de Gereñu eta Isabel Santamaria. Gasteizko Ramon Bajo ikastetxeko gurasoak.
- 11:10-11:35:** *"Ideia abstraktutik, sentimenduen adierazmenera"*.
Imanol Canales eta Garikoitz Lasa. Bilboko Ave Maria Ikastetxea.
- 11:40-12:00:** *"Praktika txikiak, bizipen handiak. Hizkuntza- praktikak aktibaziorako bidean"*.
Edorta Lopez Rey. AEK-ko Praktikatu zerbitzuko koordinatzailea.
- 12:00-12:20:** ATSEDENALDIA
- 12:25-12:50:** *"Ipar Euskal Herrian, zer berri? Transmisioa, ezagutza, erabilera, jarrerak, diskurtsoak... eta etorkizunerako erronkak"*.
Eneko Gorri. Biarrizko Herriko Etxea euskara teknikaria eta Mintzalasai elkarteko kidea.
- 12:55-13:40:** *"Ikasle etorkinak eskolan, euskararentzat (eta bestela) non dago kaltea?"*.
Amelia Barquin. MUNeko irakaslea.
- 13:40-14:25:** MAHAINGURUA: Paula Kasares, Amelia Barquin, Unai Villana, Leire Diaz de Gereñu
Dinamizatzailea: JAIME ALTUNA.
- 14:30:** AGURRA
- 14:35:** BAZKARIA

IZEN-EMATEA

Otsailaren 12tik 28ra arte
(www.etakitto.eus web orrian)
Informazioa: 943 20 09 18
normalizazioa@etakitto.eus

Antolatzailea:



Euskara Elkarte

Babeslea:



Laguntzaileak:



Eneko Baz, (Kirol Zientzietan diplomatua eta kulturista naturala)

"Men's physique modalitatean gorputz naturalagoak bilatzen dira"

Eneko Baz 24 urteko eibartarra txikitatik egon da arte martzialei eta kontaktuzko kirolei lotuta, eta oso maila altuan jardun izan du. 16-18 urterekin gimnasioan sartu zen eta fitness munduan zentratu zen. Azken urteetan kulturismoko *Men's physique* modalitatean lehiatzen du. Pasioz bizi du indarrarekin eta estetikarekin zerikusia daukan guztia eta bere lanbidea arlo horretara bideratu du. Sare sozialetan @bazman_science izenarekin aurkituko duzue.

- Jarduera fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eta kirol errendimenduari buruzko masterra egin ondoren, gehiago ikasten jarraitzen duzu eta, aldi berean, lanean diharduzu.

Bai, ikasketak eta arlo profesionala uztartzen ditut. Ikerkuntza masterra egiten dihardut eta irailean doktoradutza hasiko dut. Nire bizitza ikerkuntzara bideratuta dago, eta helburua horretan onena izatea da. Entrenatzailea ere banaiz. Estetikari lotuta dauden kirol modalitateetan eta indarrari lotuta daudenetan jarduten dut, esate baterako, Powerlifting irakasten dut. Alterofilia modukoa da, pisua jasotzen da. Irakaslea ere banaiz: Audiofit enpresa sortu zuen lagun batek, eta hor klaseak ematen ditut bideoen bitartez. Mintegiak ere ematen ditut: asteburu honetan Valentzian egongo naiz eta martxoan Eibarren egotea espero dut. Egia esan, leku guztietan sartuta nago, ez nago geldirik.

- Gaztetxoan zinenen gimnasioa ezagutu zenuenetik esan daiteke ez zarela hortik atera.

Beti egin dut kirola. Arte martzialekin hasi nintzen eta modalitate desberdinetan jardun nuen. 16 urterekin gimnasioan hasi nintzenean hobekuntzak ikusi nituen nire gorputzean, indar handiagoa, gorputz politagoa... eta hor zentratu nintzen. Lehiatzen 2012an hasi nintzen, Men's physique modalitatean. Kulturismoko modalitate bat da, modelo eta kulturismoaren



artekoa. Gorputz estetiko, gihartsu eta definituak bilatzen dira, baina ez kulturismoak bezain handiak. Gorputz naturalagoak, azken finean. Kulturismoa eta indarrari lotutako kirolak gustatzen zaizkit eta nire bizitzeko modua bihurtu da.

- Zure webgunean "Kulturista naturalaren" kontzeptua aipatzen duzu. Zer esan nahi du horrek?

Kulturismoaren barruan drogak normalizatuta daude, eta lehiaketetan hartu dai-

tezke, baina nik hormonarik ez hartzea erabaki nuen, erabaki pertsonala izan zen. Drogak hartu gabe gorputz handi bat lortu daitekeela erakutsi nahi dut. Euskal Herri mailan nire kategorian irabazi nuen iaz eta Espainiako txapelketan finalaurrekora iritsi nintzen.

- Zure webgunean oso artikulu landuak irakur daitezke. Zertaz hitz egiten duzu? Zer da ikertzen duzuna?

Nutrizioa, atsedena, entrenamendua eta hainbat gauza dira garrantzitsuak kirolarientzat, eta nik giharra handitzeko, hau da, hipertrofia lortzeko, entrenamendu aldetik zer egin behar den ikertzen dut.

- Jendeari horrelako gaiak interesatzen zaizkio?

Orain estatu mailan fitnessak boom bat bizi duela esan daiteke. 16-30 urteko jendeari asko interesatzen zaio mundu hori. Gazteek Youtube telebista baino gehiago kontsumitzen dute eta fitnessaren inguruko bideo asko daude. Nik ere kanala ireki dut Youtuben, eta bertan ariketak nola egin behar diren azaltzen dut modu erraz batean.

- Argi dago sare sozialen aldeko apostua egin duzula.

Bai, ni autonomoa naiz, eta naizena eta egiten dudana erakusteko modu ezin hobea da, zalantza barik. Dedikazioa eskatzen du (webgunea, instagram, youtube...), baina merezi duelakoan nago.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte

Kopina moda

 kopinamoda

San Agustin, 3
943 204181



ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.eus

Gazteentzat robotika ikastaro berriak antolatu dituzte


Eibarko Udalak robotikaren inguruko MAKEblock tailer teknologikoak antolatu ditu zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgildu nahi duten gazteen-tzat. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.

mailako ikasleei zuzendutako tailerra izango da eta hiru zapatutan (otsailak 24 eta martxoak 3 eta 10) emango dute, Jazinto Olabeko ludotekan. Klaseak euskaraz izango dira. Txanda bi egongo dira: lehena LHko 3. eta 4. mailakoentzat izango da, 16:00etatik 18:00etara; eta bigarrena, LHko 5. eta 6. mailakoentzat, 18:00etatik 20:00etara.



Izena emateko epea datorren astelehenetik otsailaren 20ra bitartean egongo da zabalik. Matrikula Pegoran, herritarren zerbitzurako bulegoan bete beharko da edo, bestela, internet bidez,

udalaren web orrian egiteko aukera ere badago. Eibarren erroldatuta daudenentzat ikastaroaren prezioa 27 eurokoa da eta kanpokoentzat, berriz 45 eurokoa. Ikastaroari buruzko informazio gehiago eibar.eus helbidean aurkituko duzue.



Ilargiaren erritmora dantzatu zuten gaztetxean

Asteburu betea izan zuten Eibarko gaztetxean aurrekoan, Ilargi Fest jaialdiarekin. Nalua eta Nü Shu, Eibar eta Ermuko gazte feministek antolatutako ekitaldian emakumeak izan zi-



ren protagonista. Izan ere, asmoetako bat "emakumez osatutako taldeei taula gainera igotzeko aukera ematea" zen eta hori, behintzat, ondo bete zuten, zapatu gaueko kontzertuek emakume aurpegia izan zuten eta: La Basu, Drumkopters, La Furia eta DJ Tarantistak Martxan taldeekin gorputza astintzeko aukera ederra izan zuten gazteek. Eta, horrekin batera, bi herrietako talde feministen arteko harremana sendotzeko baliagarria izan zen jai.



Drumkopters taldeak jo zuen Ilargi Fest-en. Maialen Belaustegi

Bidebarrieta, 5 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es



LASER DEPILAZIOA

OTSAILEKO PROMOZIOA

Izterondoak + Besapeak: 50€

**GORPUTZ
TRATAMENDUAK**

PROGRAMA BERRIAK

Tratamendu drainatzaile
eta birmodelatzailearen
4 saiorako bonoak

Masajeak

Powered by **BODY**



Ipini zaitez sasoi onean ...

Hileroko bonoak

... astero bakarrik 20 minutu eginez

Pertsonalizatua

Ego Ibarra batzordiarearen iazko lan-plangintzaren barruan, Eibarko hainbat tokittan mural itxuria daken tamaiña haundiko argazkixak ipintzen hasi ziran abenduaren erdialdera. Antziñako Eibar zelakua zan erakusten daben argazkixekin, kaliak apaintziaz ez eze, herrixaren memorixa bisuala indartu nahi dabe. Oin dala urte batzuk, 2013an "Hárek umiak", gerrako umien erretratuekin pasau zan moduan, oinguan be oso harrera ona euki dau ekimenak. Paretik pasau eta jendiaren aurpegi eta erreakziñuak ikusi besterik ez dago horrekin konturatzeko. Izan be, erretratuak kalia ipiñi zittuenetik denporatxua pasau dan arren, oindiok be tarteka taldetxuak osatzen dira irudixen parian, erretratuak erakusten dabenaren inguruko debatiak piztuta.

IAZKO ABENDUAREN ERDIALDERA, kalia lehen hiru argazkixak ipintzen hastiarekin batera aurkeztu eben proiektua Idoya Sarasketa Ego Ibarra batzordeburuak, Juan Luis Mardaras SD Eibarko presidente ohiak eta Jon Arregi SD Eibar Fundaziñuaren arduradunak. Izan be, sei argazki kalia ipintzeko proiektuak 18.000 euroko aurrekontua daka eta SD Eibar Fundaziñuak diruz babestu dau. Foballetik aldentzen dan holako proiektu batian laguntzeko aukeria izatiarekin pozarren azaldu ziran ordezkari bixak, "*are gehixago argazkixetako bat, gure herriko zelaixan andrazkuak foballian zelan egitten eben erakusten daben irudixa Ipuruaren kanpoko fatxadan eukitta*".



Otaola etorbidian dago hau, Unibersidade azpiko errepidian.



Jendia Karmen kaleko Karmelitateko elixaren aurrian dagan irudixari begira.

ANTZIÑAKO Eibar bueltan ekartzen deskuen ERRETRATUAK

Ipuruan ipiñi daben erretratu Segundo Varela Petite argazkilaria eibartarrarena da, 1971. urtian etaratakua. Orduan sasoiari andrazkuak foballian jokatzia, txarto ikusitza egotiaz gain, debekatuta eguan. Baiña Varelaren irudixak argi erakusten daben

moduan, Francoren gobernuaren agindueri kaso egin barik, "Eibar" izeneko taldea osatzen eben andrak foballian jokatzen eben. Eta ez hori bakarrik: Ipurua zelaixan, gaur egunian lehen maillako taldiak erabiltzen daben tokixan ibiltzen ziran. Jokalariak zeintzuk diran be badakigu, euretako batek lagun guztiak identifikatzen lagundu eban eta: Vega Solas (atezaiña), Marisol Lahidalga, Marivi Ocamica, Elena Perez, Elisabeth Aldalur, Judith Santos, Timo Treviño, Josune Sarasketa, Mertxe Baglietto, Marisa Gorrotxategi, Amelia Pintado, Almodena Urizar eta Conchi Alonso dira jokalarixak. Eta andra taldiarekin ziharduen teknikuak, hirurak gizonak, Mikel Iceta, Txemi Arregi eta Fito Saez dira. Erretratu egin eben egunian ikastolaren aldeko partidua jokatu eban taldiak.

Herrixaren bihotz-bihotzian, Untzagako jubilaue etxiaren fatxadan dagan argazkixa, barriz, 1910. urte ingurukua da. Irudixa Udal Artxibuaren eskutan dago, hain zuen be horko arduradunak zaintzen daben



T. Etxebarria kalian ipiñittako irudixa.



Untzaga plazan honako hau ikusi leike.

Erretratuak, kaliak apaintziaz gain, historixan atzera bidaiatzeko aukeria emoten dabe

Castrillo Ortuoste Fondokua da eta. Argazkixak erakusten daben moduan, plaziak oindiok Alfontso XIII.aren izena zekan sasoi hartan, gerora Beasaingo udalari saldu zetsen musika kiosko zaharra eibartarren esku eguan oindiok eta "La Marcial" Musika Bandako musikuak domekero jotzen eben Beasaiñen segitzen daben kiosko horretan. Jubilau etxiaren fatxadia goitik behera tapatzen badau be, jubilauak pozarren dagoz eta, gaiñera, jubilauak eurak aukeratu eben, erakutsi zetsazen beste batzuren artian.



Beste hau Azittaingo gasolindegian dago.

Karmeliten elizaren aldameneko horman ipiñittako argazkixa, barriz, 1960. urteko panoramikia da, orduan sasoi Urkizu inguruko bista orokorra. Erretratuak oso argi erakusten dau sasoi hartan industriak gurian euki eban indarra eta, horrekin batera, herrixaren billakeria irudikatze oso lagungarria da: Orbea fabrikia, txaleta, lorategiak eta famelixarena zan elizatzua hor dagoz. Eskumako aldirian, Bittor Sarasqueta kaliaren ingurua eta tren-geltokixa edo "estaziñua"; Ezkerrean, barriz, Urkizuko okindegixa eta Lasa eta Azcoagaren fundiziñua ikusi leikez. Argazki hori be Eibarko Udal Artxibuak ondo gordeta dittuan millaka argazkixetako bat da, Hirigintza eta Obra Funtzak bildumakua.

Hiru horren atzetik, gitxi gorabehera hillebete geruago, beste hiru argazki ipiñi zittuen, hirurak Eibarko Artxibuaren Benigno Plazaola Argazki Funtsekuak. Argazkixetako bat Azittaingo gasolinera aldameneko eraikiñaren horman dago, 1953. urtekua da eta Gabilondoneko fabrikaren onduan eterata dago. Orduan sasoi, Eibarren egitten ziran motoak eta motozikletak saldu aurretik bihargiñak probatu egitten zittuen eta hori da, hain zuzen be, argazkixak erakusten dabena. Beste argazki bat Otaola hiribidian ipiñi dabe: 1968ko erretratu horretan Unibersidade Laborala eraikitzen ari zirala ikusten da. Ez-

kerreko aldirian, bide baztarrian mikelteen etxe zaharra dago. Eta hirugarren argazkixa Toribio Etxebarria kalian dago. Hori be 1953kua da, kale horretan bertan eterata-kua: atzian Indianokua jauregixa ikusten da. Ezkerreko partian, orduan egin barrixak ziran etxiak (17-19-21-23 eta 25 zenbakiak) eta Ardantzako etxe zaharrak (gaur egun Toribio Etxebarria 9-11-13). Eta eskuman, Jose Felipe Artamendiren taillarra,



Ipuruia foball-zelaixan Eibarko lehelengo emakumien taldia agertzen da.

parrokixako lokalak, Arrizabalagaren taillarra eta gaur egunian Buenos Aires taberna dagan eraikiñaren fatxadia.

Erretratuak luzaruan irauteko modokuak dira, kalian egonda be erraz ez hondatzeko tratamendua dake eta. Asmua, argazkixeri begiratzen detsagun bakotxian gure herrixaren historixan murgiltzeko tartia hartzia litzake. Ego Ibarrek berak proiektuaren inguruan idatzi daben esaldixak diñuan moduan, "argazkixak dira mintzo, erretratu erretratu goiaz hariakaltzen herrixaren historixia".

ARATOSTEETAKO LEHIAKETA

Aratosteetan giro edo dekorazio onena duen **TABERNA**



Astekari honetan publizitatea jarri dutenen artean, **AUKERATU ZURI GEHIEN GUSTATU ZAIZUNA:**

- ✓ Ametsa
- ✓ Arkupe
- ✓ Beleko
- ✓ Bossa
- ✓ Buenos Aires
- ✓ Dos de Mayo
- ✓ Duran Duran
- ✓ Ez Dok
- ✓ Guridi
- ✓ Hirurok
- ✓ Katu Kale
- ✓ Kultu
- ✓ Laurel
- ✓ Su Beroa
- ✓ Trinkete
- ✓ Txoko

parte hartzeko...

Giro edo dekorazio onena izan duen taberna aukeratzen laguntzeagatik ...etakitto!ko **opariaren** zozketan parte hartuko duzu.

Parte hartzeko:

www.facebook.com/etakittoaldizkaria helbidean sartu eta **"atsegin dut"** eman gustokoen duzun tabernaren argazkian.

Azken eguna: **eguztena, 14**



ARATOSTIETAKO



GIORIK ONENA!!!

BUELYATU DIRA GURERA!
70. hamarkadako urteak

Trinkete
EIBAR 1957

TXOKO TXOKO

beti da eskertzekoa Oihaneko arnagunea

BAR BUENOS AIRES

ALIZIA Lurralde Miresgarrian

Gozamen hutsa!

Euskal Herio mitologiaren

GURIDI RUGBY erreinuan

Mari Etsai Basajaun

Mexikoko kantina onena

Eibar erdian

Kultö:

hirurok
Erekatxu 1, Eibar

ARATOSTEAK
2018/02/10

AITOB MU & BALZA

Kill Bill
Mia Wallace

Laurel & Hardy Pub

Gurekin Tarantino biziko duzu

INAUTERIAK 2018

Beleko

AFTERRA 07:00 - 12:00

Su Beroa

Bista Eder, 11 bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 47 77 79
Suberoatarbena@gmail.com

40 URTE



PERIKO IRONDO: "Arrateko Handia".

Espainiako neguko triatloi bi txapel Osorotarrentzat

Asteburua joan, asteburua etorri, Pellok eta Txominek kirol modalitate hori zenbateraino menderatzen duten erakutsi digute. Azken garaipena Anso Bailarako XVIII- triatloian eskuratu dute Delteco Eibar Triatloiko taldekideek eta, horrekin batera, Espainiako txapela jantzi dute aipatutako proban. Pello lehena izan zen helmugaratzen gizonetako en lasterketan eta Txominek, laugarren postuarekin batera, junior mailako txapela jantzi zuen. Osorotarren nagusiak segundo gutxi batzuk atera zizkion Joan Freixa bigarren sailkatuari eta alde handiagoa Mundialetan parte hartu duen Jesus Alberto Garcia Colás brontzezko dominari. Txominek ondo zaindu zuen laugarren postua eta, horrekin batera, lortu zuen 23 urte-tik beherako lehena izatea helmugan. Anso herriko kalean hasi zen antxintxiketan egindako proba Linzako pistetan amaitu zen, fondoko eskia egiteko baldintza bikainetan.



Hiru lehen sailkatuak, Pello Osoro erdian dagoela.

Eskubaloiko gizonetako bi talde nagusienek Ipuruan jokatu dute bihar

Biak ere aurreko asteburuan izandako porrotak ahazteko gogoz kantxaratuko dira. Egia esan, ez zuten zorte handirik izan euren azken partiduan eta, horrela, 1. Nazional Mailako Somosek San Antoniorekin Iruñean 30-28 galdu zuen eta Gipuzkoako 1. Mailan

jokatzen duen Haritzak gol bakarrarengatik eman zuen amore Ormaiztegin (26-25). Emakumezkoen Euskadiko Txapelketan jokatzen duen Aviak 20-25 galdu zuen Egiarekin etxean eta bihar Legazpin jokatu behar du, bertako Oskarbiren aurka. Ipurua kiroldegiko partiduetan,

bestalde, Haritzak Leizaran Ernio hartuko du bihar 16:45ean eta Somos Eibarrek ohiko orduan izango du Egia Kopidinen bisita.

Aurreko asteburuan talde nagusiek lortu ez zutena eskuratu zuten harrobikoek, batez ere kadete eta infantil mailako taldeek: sei garai-pen, berdinketa bat eta hiru porrot guztira.



Marina Estevezek zuzentzen duen Urkotroik Eibar B infantil mailako taldeak 17-18 galdu zuen Usurbilekin.

asteburuko agenda

Aratosteak tarteko, asteburuko kirol agenda asko murriztu da oraingoan, batez ere harrobiko taldeei dagokienez. Talde nagusienek, gainera, kanpoan jokatuko dituzte partidu gehienak: foballean eta waterpoloan goi mailako talde guztien kasua da eta, errugbian eta saskibaloian partidurik ez dagoenez, esku-baloia geratzen zaigu bakarrik Eibarren.

FOBALLA

1. Maila

Leganes - Eibar (bihar, 18:30)

2. B Maila

Vitoria - Gernika (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Ostadar - Eibar (bihar, 15:30)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Hernani - Eibar (bihar, 18:00)

KADETEAK

Euskadiko Liga

Olarizu - Eibar (bihar, 12:00)

FOBALL-ZALETUA

KirolBet Liga

Durango - Garajes Garcia (bihar, 09:00)

Esmorga - Azkena Adahi (bihar, 09:00)

Slow XOK - Reformas Hiru (bihar, 10:30)

Bar Arkupe - Bar Txoko (bihar, 12:00)

Ipur Sag. - Sporting Larragest (etzi, 09:00)

Bar Areto - Feredu Solutions (etzi, 10:30)

Alkideba - LP Tankemans (etzi, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Egia Kopidin (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Oskarbi Legazpi - Avia Eibar (bihar, 16:00)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Leizaran Errnio (bihar, 16:45)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

C.D. Bilbao - Urbat Urkotronik (etzi, 16:20)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Castellae - Urbat IKE (bihar, 15:45)

XAKEA

1. Maila

Baiona - Eibar A (bihar, 16:00)

3. Maila

Eibar B - Bergara B (bihar, 16:00)



MANUEL URÍA OLABARRIA

2018ko otsailaren 5ean hil zen

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Bere aldeko IRTEERA MEZA ospatuko da hilaren 11n (domekan), 12.00etan hasita, San Pio X. elizan.

Gaztaren Ibilbideak bigarren etapa egin zuen zapatuan

Aurreko zapatuan Idiazabal Gaztaren Ibilbidearen bigarren etapa osatu zuten Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako irteeran parte hartu zuten 33 mendizaleek. Ordiziatik Seguraraino joan ziren, "bidean elurrez gozatzeko aukerarekin". Batzuk bide laburragoa aukeratu zuten, 13 kilometrokoa, eta Idiazabal gaztaren Interpretazio Zentroa eta Ertaroko Museoa bisitatu zuten Seguran. Bide luzeagotik jotzea erabaki zutenek elurra belaunetaraino izan zuten lagun Andrelorriaga (723 metro), Arantzazumendi (778) eta Atxatikogaina (743) egindako igoretan. Jakina, gaztaren zozketa ere egin zen: Ernesto Igartua izan zen zorioneko.

Sagardotegira irteera

Hilaren 17an, datorren asteko zapatuan, egingo den mendi irteera urteroko sagardotegiko bazkariarekin amaituko dute. Ibilbideak Andoaindik Usurbilera eramango ditu mendizaleak, tartean Belkoain eta Andatza mendiak gaindituz. Bazkaria Aginaga auzoan egingo dute, sagardotegiko menua dastatuz.



Elurrez inguratuta jardun zuten Deporreko mendizaleak. **Periko Iriondo**

Aste Santurako izen-ematea

Martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte Extremadurako Valle del Jertera egingo duten txangorako izena emateko epea zabaldu dute Klub Deportibokoek. Interesatuak T. Etxebarria kaleko euren bulegotik pasa daitezke martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) edo 943-201904 telefono zenbakira deitu.



Kalamuako bi ordezkari txartela lortu zuten estatuko finalerako

Aurreko zapatuan Madrilgo Villaviciosa de Odonen jokaturako jiu jitsu modalitateko estatu mailako kata Openean izan ziren parte hartzen Hegoi Esteban eta Mikel Txakartegi. Biendako lehen aldia bazen ere, bikain jardun zuten lehian eta apirilean Guadajajaran jokaturako diren Espainiako

txapelketarako txartela eskuratu zuten. "Eguraldiarengatik ahazteko hobe izan zen bidaian" joan zen eurekin Manu Agirrek. Eta honek, kata-epaileen birziklaia ikastaroa egiteaz aparte, mahai-presidente lanak egin behar izan zituen Openean, horrela izendatu baitzuten bertan.

Aitor Hernandez ez zen ondo ibili ziklo-kros Mundialean

Ez zuen bere egunik onena izan Specialized-Ermua Impulsoko txirrindulariak Herbehereetako Valkenburgeko hirian jokaturako Munduko ziklo-kros txapelketan. Ermuarrak 45. postuan amaitu zuen lasterketa, Wout van Aert belgiarrarengandik hiru itzulira. Irabazleak hirugarren txapela jantzi du jarraian; Aitor Hernandezek, aldiz, ez du aurreko bost parte-harzteetan lortutako posturik hobetu. Denboraldia amaitu zaio dagoeneko eta, etxeko lasterketan aurreko postuetan izan bada ere, atzerrira irten denean jokaturako probetan ez da hain ondo moldatu, "batez ere, proben gogortasunagatik eta hor izandako lokatzarengatik".



Manixek Atletico Baleares putzutik ateratzeko ahalegina egingo du

Azken aldiko atsedenaldiarekin apurtu eta Balear uharteetan izango du hurrengo erronka Eibarko entrenatzaileak. Sasoi honetan prestatzaile bati deitzen diotenean, gauzak larri dauden seinale izaten da; eta horrelakoa da oraingoa ere. Atletico Baleares jaitsiera postuetan dago une honetan, salbaziotik lau puntura, 2. B mailako 3. multzoan eta egoera hori iraultzeko asmoz doa Javier Mandiola "Manix" haraino. Tudelano izan zen eibartarraren azken taldea eta harekin ondo asmatu zuen larritasunetik irten eta igoserako promozioa jokatzera ere heldu baitzen talde nafarra.

Zazpi domina ekarri zituzten Eibar Igerixan-eko alebinek

Aurreko asteburuan alebin mailako igeriketako Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatu zen eta Eibar Igerixan taldeak zortzi igerilarirekin hartu zuen parte: Miren Galdos, Lucia Gabilondo, Maddi Maguregi, Malen Beobide, Leire Larrañaga, Olatz Vicuña, Maialen Gomez eta Adrian Etxaluze. Lehiaketa bikaina egin zuten Eibarko ordezkariak, gehienen kasuan marka pertsonalak hobetuz. Horrez gain, zilarrezko bi domina eta brontzezko bost bereganatu zituzten Eibar Igerixan taldekoek.



Ipuruako gimnastak bigarren izan dira bi lehiaketetan

Amateur eta Eskolako A taldeek, biek, postu bera eskuratu zuten aurreko asteburuan. Ipuruako kadete mailako B taldea bigarren izan zen, 15 klubaren artean, hiru aro eta bi pelotekin egindako ariketan. Banaka ere bikain moldatu ziren eta Naroa Perez lehena izan zen, kadete A mailan Nahia Gonzalez liderra den bitartean. Horrez gain, senior+ mailan Sara Etxaburu dugu gaur egungo liderra. Eskola txapelketan, bestalde, alebin A mailako seikoteak bigarren postuan amaitu zuen, eta banaka ere bikain jardun zuten.

Asteburu betea izan zuten errugbilariek

Oraingoaren guztiz kontrakoa, beraz; asteburu honetan Aratosteez gozatzeko aprobetxatuko dute-eta, partiduren faltan. Aurrekoan emakumezkoen taldeak bigarren postua zuen jokoan Gasteizen, aurretik elurragatik atzeratutako partidua zuelako Escor Gaztedi taldearen aurka. Eibartarrek 12-5 galdu bazu-


ten ere, maila onean jardun zuten eta defentsako bonusa lortu zuten. Gainera, Maitanek eta Elenak debutatu zuten. Gizonezkoen senior taldeak 17-19 galdu zuen Unben Durangorekin. Eta partidua izan zituzten 18 eta 16 urtetik beherako taldeek; eta 10 eta 12 urtekoek kontzentrazioa Mutrikun (*argazkian*).



- SUKALDEAK
- BAINUAK
- ETXEKO ALTZARIAK



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan



BEGOÑA RIVAS

(argazkilaria):

“Irudi batek ez du hitzen premia eduki behar, dena esan behar du”

Begoña Rivasen bizitzaren argazkian Eibar, Venezuela, New York eta Madrilgo paisaiak ageri dira. Hemen jaio zen, Hego Amerikan murgildu argazkilaritzaren munduan, Ipar Amerikan ikasi eta Espainiako hiriburuan garatu du bere ibilbide profesionala. 23 urtean ‘El Mundo’ egunkariko argazkilaritza sailean lan egin eta gero, gaur egun Jot Down, Cambio 16, El Español eta beste hainbat hedabidetan ikusi ditzakegu bere argazkiak (eta baita bere webgunean -www.begonarivas.com-, eta bere Twitter eta Instagram kontuetan -@begona_rivas).

- Bazen behin New Yorkera argazkilaritza ikastera joan zen eibartar bat... Nola osatzen da istorio hori?

Beno, New Yorkera joan aurretik Venezuelara joan nintzen beste eibartar batekin lehenik. Kamera ederra neukan eta argazkilaritza asko gustatzen zitzaidan. Neure buruari egiten nizkion argazkiak.

- ‘Selfiearen’ aitzindaria izan zinen!

(Barreak) Modu honetan asko ikasi nuen, argazkilaritzaren inguruan asko jakin gabe, sentsibiltate ezberdinak zituzten pelikulak zeudela ikasi nuen eta beste hainbat gauza deskubritu nituen. Venezuelatik bueltatzean

oposaketa batzuk egiteko ikasten hasi nintzen Madrilan, argazkilaritza batzuen lagun egin nintzen eta New Yorkera joatea erabaki genuen hiru lagunek. Horietako bat Daniel Canogar zen, Argazkilaritzako Sari Nazionala jaso zuena eta Rafael Canogar margolariaren semea. Eurak eskola garrantzitsu batean sartu ziren, eta ni ingelesa eta argazkilaritza ikasten hasi nintzen argazkiak positibatzeko laborategi batean. Hainbat gauza enkargatu zidaten, baina bisaturik ez neukanez bueltatu egin behar izan nuen.

- Madrilera?

Bai, *Arte Garaikidearen museoan* lanean hasi nintzen eta bertako artxiboa egin nuen 9x12 plakekin. Gero *Reina Sofia museoa* ireki eta horra pasa zuten artxiboa. Urtebete geroago prentsan hasi nintzen lanean. Ekonomia aldizkari batetik *El Independiente*-ra pasa nintzen, eta handik *Telva*, *Bit* eta *El Mundo* egunkarira. 23 urte egin nituen *El Mundon* eta ERE baten ondorioz irten nintzen handik. *El Mundon* lanean negozienean *Jot Down* webgunetik deitzen hasi ziren eta eskusibitate kontratua nuelako ezin nuen eurentzat lan egin, baina handik irtetea bai. Orain freelance moduan nabil lanean eta *XL Semanal*, *Marie Claire*, *El País Semanal*, *Cambio 16* eta beste hainbat hedabiderek inon egin dut lan.

- Zure ibilbide profesionala prentsan garatu duzu batez ere, baina hainbat erakusketa ere egin dituzu. Eguneroko lan errutinarioa eta sormeneko lan artistikoago bat uztartzeko modua izan da?

‘El Mundo’ egunkariko argazkilaritza saileko burua nintzenean nahiko lan errutinarioa neukan eta ez nuen argazkirik ateratzen. Orduan, husten zegoen Guadalajarako Casasa herrira joaten hasi nintzen bertako biztanleei argazkiak ateratzera. Horrelako gauzak egiten ditudanean erronkak jartzen dizkiot neure buruari eta, kasu honetan, ni baino zaharragoa zen ‘rolleiflex’ argazki-kamera batekin atera nituen argazkiak. Zoom eta beste-lako errekurtsorik gabe moldatu behar izan nintzen, antzinako argazkilarien moduan, Cartier-Bresson eta horiek. Neure buruarentzat egiten nuen, baina jendeari gustatu zitzaion eta lana ‘Magazinean’ publikatu zuten, ‘El Mundoren’ igandeetako aldizkarian. Gero, lan hori beste hainbat tokitan erakusteko aukera ere izan dut.



Charlize Theron.

- Erreferenterik badaukazu argazkilaritzan?

Mila erreferente izendatu ahal dizkizut eta inor ez aldi berean. Erretratugileak gustatzen zaizkit batez ere. Arnold Newman asko gustatzen zait; Annie Leibovitz ere asko gustatzen zitzaidan, baina orain ez hainbeste; eta Richard Avedonek liluratu egiten nau. Gero, argazkilarri berri batzuk ere gustoko ditut, baina gero gustuak aldatu zaizkit. Nahiko aldakorra naiz zentzu horretan.

- Ibilbide luzea egin duzu, zure argazkiak toki garrantzitsuetan irten dira eta estilo bat ere markatu duzu. Argazkilarri erreferentea zarela sentitzen duzu?

Ezta gutxiago ere! Oraindik ikasten jarraitu behar dudala pentsatzen dut. 'El Mundotik' irten naizenetik eboluzionatu egin dudala pentsatzen dut. Egunkariaren editorialari lotuta negoen eta orain libreago sentitzen naiz, gauza gehiago egiten ditut. Gainera, proposatu ditudan erreportaje gehienak publikatu dizkirate. Etengabeko eboluzioan nago.

- Inork baino hobeto jakingo duzu zuk. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du?

Batzuetan bai. Irudi batek ez du hitzik eduki behar, dena esan behar du. Irudi batek ez du mila hitzek baino gehiago balio behar, baina irudi batek ez du hitzen premiarik eduki behar.

- Zure objektiboaren aurretik hainbat pertsonaia famatu eta toki asko pasa dira, eta Eibar?

Eibar ez, baina Deba bai (barreak). Eibarra joan beharko dut. Begira, nik bi argazkilarri garrantzitsurekin ikasi dut (hauek bai erreferenteak direla esango nuke), Pierre Gonnord eta Douglas Kirklandekin. Gonnordek Leon-go meatzariak eta Portugaleko ijitoak erretratatu ditu. Erretratuak margolanak bezalakoak izatea gustatzen zait eta berak hori egiten du. XVIII. mendeko margo flandriarren antzeko erretratuak ateratzen ditu. Kirklandek, bestetik, aktore ugari erretratatu zituen Hollywood



Loquillo



Juan Echanove



Anna Castillo



Ferran Adria

punta-puntan zegoenean eta Marilyn Monroeri ohean (izara zuri batekin agertzen den argazki famatu horiek) argazkiak ateratzea egiten zuten famatu. Berarekin egin nuen tallerrean gauza bitxi bat kontatu zigun. 'Titanic' pelikula estreinatzeko egun gutxi gertatzen zirenean ekoizle-etxea konturatu zen ar-

gazki txarrak zituela eta Kirklandi deitu zioten argazki berriak egiteko. Leonardo Di Caprio eta Kate Winslet argazkiak atera zizkien eta, dirudienez, Winsletek ile gutxi zeukan. Kirklandek Photoshoparekin konpondu zuen arazoa. Kontua da, guzti hori presa handiekin egin zutenez ekoizle-etxeari kontratua ondo ixtea ahaztu zitzaiola (normalean lana egiten duzu eta horregatik ordaintzen dizute, kitto) eta, berak esan zigun moduan, "horrela erosi ahal izan nuen Los Angeleseko etxea". Urte askotan zehar erdi ahaztuta egon zen argazkilarri hau eta, honen ondorioz, deiak jasotzen hasi zen. Horregatik diot oso garrantzitsua dela eboluzionatzen jarraitzea; Kirklandek Photoshopa nola erabili ikasi izan ez balu, ez zuen bere karrera berpiztuko.

- Zein bide jarraitzen du orain zure karrerarak?

Heltzen naizen tokiraino jarraituko du nire bideak. Ez nau gehiegi arduratzen gustatzen zaizkidan gauzak egiten jarraitzea. Sormenezko burua daukat eta beti nabil zerbait berria egiteko pentsatzen. Lan gehiago egitea gustatuko litzaidake, autonomoen kontua ez delako batere erraza, gainera argazkilaritza digitalarekin gaur egun ia edonork ateratzen ditu argazki itxurosoak. Baina ez dira lehen-goak bezalakoak, ez dago kolorerik. Gainera, jendeari edozer gauza iruditzen zaio ondo dagoela eta nik haluzinatu egiten dut. He-dabideak hala-nola dabilta gaur egun argazkien mailaren aldetik. Adibidez, uste dut Jot Down erreferentzia dela, askok kopiatu egiten gaituztelako. Nola da posible? Jendeak ez dauka ideia berririk. Boxeoan ibiltzen diren emakumeen erreportajea atera nuenean ere berdin gertatu zen. Ordura arte inork ez zuen gai hori tratatu, baina ordu-tik mundu guztia hasi zen boxeoari buruzko kontuak lantzen.

- Beraz, zuk ezetz esaten baduzu ere, erreferentea zara.

Ez, ez!



Boxeolariak.



Marea behea Deban.



VICENTE IRIONDO
(margolaria)

- *'In itinere' titulua jarri diozu erakusketari. Zergatik?*

Lanetik etxera (edo alderantziz) gertatzen den istripuari deitzen zaio 'In itinere istripua', eta posizio horretan nago ni bizitza osoan. Aspalditik nabil koadroak egiten, baina helburua inoiz ez da izaten helmugara heltzea, prozesua da garrantzitsuena. Batzuetan nahi duzuna topatzen duzu, beste batzuetan ez, baina egiten duzun bidea da inportantea.

- *Zer ikusi dezakegu erakusketan?*

Gogoeta egiteko balio duten koadroak dira. Koadroak pertsonak bezalakoak dira eta, erakusketa osoa hartzen badugu, nire isla da. Bakoitzak barruan dituen gauzak ateratzen ditu kanpora, ezagunak eta ezagutzen ez dituzunak ere. Horretarako formak, figurak eta koloreak erabiltzen ditut, eta nire kasuan urdina da nagusi.

- *Teknikari dagokionez nolako margolanak dira?*

"Ikusitako gauzen espresioa kanporatzen dut erakusketan"

Normalean ez ditu bere erakusketa edota koadroak izendatzen, baina oraingoan bai. 'In itinere' titulua daukan erakusketa ireki du Vicente Iriondo margolariak Topalekuan eta hilaren 18ra arte egongo da zabalik astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. 02675 zenbakiak garrantzia berezia dauka erakusketa honetan eta koadroetan aurkituko duzue erantzuna.

Egitura linealarekin nabil lanean eta lerroak dira protagonista. Hainbat esanahi izan ditzakete; kasu honetan, adibidez, kolorearen sostenguak dira (dio koadro bat seinalatu). Egitura linealen hizkuntza funtsezkoa da, lerroak oinarritzekoak dira. Berba egiten duten elementuak dira lerroak.

- *Nolako prozesua jarraitu duzu koadroak egiteko?*

Gauzak egiten dituzu eta koadro batek beste batera eramaten zaitu. Bapatean sortzen dira, gaztetan entzundako abesti batek inspirazioa ekartzen dizu eta horren harira margolana sortzen duzu. Ikusitako gauzen espresioa kanporatzea da erakusketaren emaitza. Arkatza eta papera eskuan badituz, sekuentzia bat pentsatu eta egitura bat sortzen dut. Zirriborroak dirudite, baina lerroek irizpide bat jarraitzen dute. Tamaina handiko mihisean brotxa handiarekin margotze-

ko gonbidapena jasotzen duzu nahigabe, eta materiala nola moldatzen den ikusten duzu. Koadroak sufritu dezala gustatzen zait. Pertsonen moduan, koadro guztiek momentu hobekak izan dituzte aurretik eta hori igarri behar da. Ezin da jarduera garbia izan, koadroak bizitza izan behar du.

- *Noiz sortu dituzu obrak?*

2014ean hasi nintzen lan hauek sortzen. Hizki txinatarrekin izendatzen ditut urteak, ez hortera izateagatik, hizki mota horiek koadroan ondo integratzen direlako baizik.

- *Erakusketara hurbiltzen direnei koadroen gaineko esplikazioa ematen diezu?*

Etortzen den pertsonaren arabera. Esplikatzeko hasi eta pertsona beste toki batera begira hasten bada, agur. Interes badaukate, edozer gauza esplikatu ahal diet.

Giuseppe Verdiren Rigoletto bertsio digitala bihar Coliseoan

Lanaren bertsio digitala diferituan eskainiko dute bihar, 19:30ean, Coliseoko 2 Aretoan. Londreseko Royal Opera House-aren interpretazioa jasotzen du emankizunak, Verdiren opera tragiko indartsuari Alexander Joelek zuzendaritzan eta David

McVicar produkzioan emandako ikutu bereziarekin. Errepartoan Dimitri Platanias, Lucy Crowe eta Michael Fabiano dituzte lan berezienak. Inozentziaren korrupzioak hartzen du protagonismoa Giuseppe Verdik 1855ean idatzitako lanean, berarentzat eta beste askorentzat "berak inoiz egingandako obarik onenean". Berak idatzi ondoren, hamar urtetan 250 aldiz antzeztu zuten.



Eguen Zuri Argazki Lehiaketaren edizio berria martxan

Arrate Kultur Elkartek XXI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du. Argazkietarako gaia "Aratosteak" da eta lehiaketa zaletu guztientzat zabalik egongo da. Parte hartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu (koloretan zein zuri beltzean) eta argazkiek 40x50 zentimetroko euskarri edo pass-partout-a izan beharko dute. Lanak Arrate Kultur Elkartearen (lehen



solairuko bulegoetan edota Kultu tabernan) jasoko dituzte eta argazkiak entregatzeko azken eguna martxoaren 7a izango da. Argazki onenaren egileari 160 euroko saria emango zaio, bigarrenari 100 eurokoa eta hirugarrenari, berriz, 60 eurokoa.

Azken edizioko irabazlea.



IRATXE GIMENEZ

Loreontzitik ateratako ikurrak!

Urtarrilean Naomi Parker Fraley estatubatuarra zendu zen. Emakume hori feminismoaren ikur den "We can do it" kartelaren modeloa genuen. Irudia 1943. urtean erabili zen Estatu Batuetan fabriketako grebak eta lanuzteak ekiditzen saiatzeko. Bigarren mundu gerra bizitzen ari ziren eta emakumeak behar ziren lantegietan. Laurogeigarren hamarkadan mugimendu feministak berea egin zuen afixa.

Marlboro gizonaren irudiarekin "antzerako parecido" gertatu zen. Bigarren mundu gerran Europan borrokatutako soldatuek Estatu Batuetara bueltatu zirenean, filtrorik gabeko tabakoa erretzen jarraitzen zuten euren jaioterrian, filtrodun zigarroak emakumeekin lotzen baitziren. Marlborok publizitate kanpaina gogorra jarri zuen martxan: gizon maskulinoa, sendoa, "iskoa", bularrean ile asko duen horietakoa jarriko zuten filtrodun zigarroak erretzen. Kanpaina arrakastatsua izan zen bere garaian (50. hamarkadan), baina gaur egun "Marlboro gizonak" izan diren asko minbiziak hil direla argitaratu denean, bakero honen esanahia aldatu dela esango nuke.

Eibarko argazki zaharrak begiratzean, gure sinboloekin antzerako zerbait gertatu dela sentitzen dut. Denok dugu gure herri-irudi bezala bizikletak, armak, josteko makinak, Lambrettak... baina zer geratzen da guzti horretaz gaur egungo Eibarren? Izan zirelako gara eta garelako izango dira... gure irudi edo sinbolo esanguratsuen aizaera dela pentsatu nahi dut, gauzak egiteko modua eta bizitzeko era: Eibarreraz.

Ingelesezkoen pareko egokia euskeraz asmatzeko e-berba lehiaketa antolatu dute

Mundu digitalean barra-barra erabiltzen diren ingelesezko berben pareko egokia euskeraz asmatzeko lehiaketa antolatu dute Eibarko Udalak, Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Dagoeneko horrelako batzuk baditugu (tweet/txio edo hashtag/traola, adibidez), baina lehiaketa parte hartu nahi duenak antolatzaileek emandako zerrendan dauden berbak (bat edo gehiago) aukeratu eta euskerazko pareko egokia asmatu beharko du. Hauek dira zerrendan jaso dituzten berbak: Influencer, Youtuber, Meme, Spoiler, DIY (do it yourself), Trending topic, Selfie, Postureo, Hater eta Fake.

Proposamenak posta bidez euskaltegia@eibar.eus, eibar@ae.eus, edo euskara@eibar.eus helbideetara bidali daitezke edo, bestela, Juan San Martin liburutegian jarri duten postontzira eraman. Azken eguna otsailaren 25a



izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, euskerazko berbek ez dute zertan itzulpen zuzenak edo literalak izan eta umorea eta originaltasuna baloratuko dira. Irabazleentzako sariak Coliseorako eta Armagintzaren Museorako sarrikerak izango dira.

Esther Galarzaren lana, "Salerosiak, esklabotasunera bidaiak" erakusketa kolektiboan

Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen EmPoderArte kolektiboak "Salerosiak, esklabotasunera bidaiak" erakusketa zabaldu zuen aurreko barixakuan Donostian, Okendo Kultur Etxean. Martxoaren 16ra arte zabalik egongo den erakusketa 42 emakume artistak har-



tzen dute parte, tartean Esther Galarza eibartarrak. Teknika eta estilo anitzei jarraituta sortutako artelanen bitartez, batez ere emakume eta neskei eragiten dien pertsonen legez-kanpoko salerosketa salatu eta ikusleak hausnarketara bultzatu nahi dute antolatzaileek. Erakusketa 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era zabalduko dute astebarruan eta zapatuetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Otsailerako argazki erakusketak

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, hiru tabernatan beste horrenbeste argazki erakusketa egongo dira ikusgai otsailaren amaiera arte: Ambigú kafetegian eta Portalea jatetxean Pilar Aguayo, Nekane Aranburu eta Txaro Barinaga-Rementeriarren lanak ikus daitezke eta Eibarko Klub Deportiboaren tabernan, berriz, "Distira" izenburukoak.





El Drogas-en kontzertua hilaren 16an ERMUAN


Datorren asteko barixakuan, 16an, kontzertua emango du El Drogas-ek Ermua Antzokian, 22:15ean. Barricada taldearen ahotsa izan zena antzoki batetik bestera dabil, bira berrian murgilduta eta Rhythm & Blues, Rock & Roll eta soinu elektroakustikoagoetan oinarrituriko errepertorioa eskaintzen. Glam tankerako Riff xume eta rokanroleroak interpretatzen ditu, gitarren indarrari eta bi koristen melodiei teklatuak gehituta. Bederatzi musikarik osatutako banda batekin taula-gainean, abestiek beste dimentsio eta izaera bat hartzen dute. Sarrerak 12 euro balio du.



Wim Mertens eta Kirmen Uribe hilaren 23an AZPEITIAN

Wim Mertens pianojoleak eta Kirmen Uribek 'Mussche' izeneko obra taularatuko dute Azpeitian datorren asteko barixakuan. Ekitaldia Soreasu antzokian izango da eta gaueko 22:00etan hasiko da. Wim Mertensek Euskal Herrian emango duen kontzertu bakarrarendako sarrerak www.kulturaz.eus helbidean eskuratu daitezke. Kirmen Uribek idatzitako liburuari soinu banda gisako musika jarri dio Mertens-ek. Horrez gain, bere lanetako kantuak ere joko ditu; eta Uribek, berriz, liburuko pasarteak irakurriko ditu, argitaratu gabeko poema bati ere lekua eginez.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- M^a Jesus Zulueta Vilariño. 55 urte. 2018-II-1.
- Lucia Sampayo Fernandez. 49 urte. 2018-II-2.
- Jose Mtnez-Alcocer Mtnez-Blanco. 85 urte. 2018-II-2.
- Asuncion Gamazo Gamazo. 80 urte. 2018-II-3.
- Angelita Arregi Illarramendi. 88 urte. 2018-II-4.
- Ramon Arizmendiarieta Guridi. 86 urte. 2018-II-4.
- M^a Carmen Amas Alzibar. 88 urte. 2018-II-4.
- Manuel Uribe Olabarria. 68 urte. 2018-II-5.
- Benigno Castrillo Diaz. 78 urte. 2018-II-6.

jaiotakoak

- Lara Fernandez Gonzalez. 2018-I-28.
- Markel Kortaberria Mendizabal. 2018-I-29.
- Nahia Barbero Zubeldia. 2018-I-30.

farmaziak

- Barixakua 9
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 11
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 12
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 14
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguena 15
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Barixakua 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI -2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

3	5	1	6	8	4	7	2	9
2	4	6	9	7	3	8	5	1
7	9	8	2	1	5	3	6	4
1	6	7	5	9	8	4	3	2
5	3	9	4	2	1	6	8	7
4	8	2	3	6	7	9	1	5
9	2	5	7	3	6	1	4	8
8	7	3	1	4	2	9	5	6
6	1	4	8	5	9	2	7	3

6		8		7	4		3	
4			1					
		7	8	6				
2								1
	9						5	
5								6
			7	2	6			
				8				4
3		1	6		7			5

telefono

jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udalzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepeideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

Barixakua 9

AMAÑAKO INAUTERIAK

17:00. Umeendako joko eta eskulanak.

18:00. Txokolatea, umeentzat.

19:00. Txikiteoa, koko-jantzita, auzoko tabernetan. Antolatzailea: Amaña es la caña.

UMEENDAKO TAILERRA

17:30. Aurpegia margotzeko, doan. El Corte Inglesean (jostailu sailean).



BARIXAKU ERREGULARRA

20:00. Kaldereroen kalejira. Partehartzaileak: Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto!, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Lagun Taldea, Untzagako jubilatuen abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Adolfo Jainagaren trikitixa eskola. Urkizutik abiatuta, Untzagaraino.

20:30. Kaldereroen abestiak eta dantzak. Untzagan. Aratoste pregoia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, 25. urteurrena dela eta.

23:00. Eirband taldearen kontzertua. Untzagan.

Zapatua 10

ARATOSTE ZAPATUA

12:00. Animazioa Aratosteetako karpan, San Kristobalگو Jai Batzordearen eskutik. Ardo dastaketa (Gontes Upeltegia) eta txorizo pintxoak.

12:30/14:00. Rockalean taldearen emanaldia. Untzagan.

12:30. Koadrilen kalejira, Ustekabe fanfarreak lagunduta. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria, Untzaga.

18:00. Koko-jantzi lehiaketa. Galiziako Etxean.

18:00/20:00. Brass Band taldearen kalejira. Untzagatik hasita.

18:30/20:30. Umeendako berbena, Alaiki taldearekin. Untzagako karpan.

19:00. Aratosteetako lehiaketetako sari banaketa. Untzagako karpan.

23:00/02:00. Dantzaldia, Alaiki taldearekin. Untzagako karpan.

AMAÑAKO INAUTERIAK

17:00. Txotxongiloak, Bihar taldearen eskutik.

18:00. Txokolatea, umeentzat. Djaren emanaldia. "Amaña es la caña" Inauterietako argazki lehiaketa. Antolatzailea: Amaña es la caña.

Domeka 11

AMAÑAKO INAUTERIAK

10:00. Salda eta txorizoa.

12:00. Musi-poteoa auzoan. Antolatzailea: Amaña es la caña.

ARATOSTE DOMEKA

11:00. Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Taldearen eskutik.

17:00. Umeendako Playback lehiaketa, ...eta kitto!-k antolatuta. DJ Arnorekin. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Martitzena 13

IKASTEN

10:00. "Buru argiak 1" (burmuina indartzeko ariketak) hitzaldia, Elena Iraolagoitiaren (Adindu) eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.

17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ARATOSTE MARTITZENA

17:00/18:30. Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzagan.

18:30. Sardinen entierri txikia, Hortzmuga antzerki taldeak eta trikitilariak lagunduta.

19:00. Umeendako diskoteka, Untzagako karpan, Arima Cool Tour taldearekin.

19:00. "Break in Eibar", 7-11 urte bitarteko haurren break dance erakustaldia.

Eguaztena 14

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

Eguena 15

IKASTEN

10:00. "Euskal Herriko kostaldeko Geoparkea" (Flysch&Karst) hitzaldia, Asier Hilarioren (Geologian dokorea eta Geoparkeko zuzendaria) eskutik. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19:00. "Landareak lantzen" liburuaren aurkezpena egingo du Jakoba Errekondo egileak. ...eta kitto! Euskara Elkarteari antolatuta, Illunabarrian programaren barruan. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartea).



Erakusketak

Otsailaren 18ra arte:

– VICENTE IRIONDOREN MARGO ERAKUSKETA. (*Topalekuan*)

Otsailaren 18ra arte:

– PILAR AGUAYO, NEKANE ARANBURU ETA TXARO BARINAGA-REMENTERIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA. (*El Ambigú eta Portalea jatetxean*)

– "DISTIRA" ARGAZKI ERAKUSKETA. (*Eibarko Klub Deportiboan*)

Martxoaren 4ra arte:

– "CUESTION DE TIEMPO" JOSE IBARROLAREN ERAKUSKETA. (*Portalean*)


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NERE, astelehenian urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ASIER Agote Ramirez, gaur 3 urte betetzen dozuzelako. Patxo potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, XABAT, astelehenian 4 urte bete zenduazelako. Patxo haundixa Eburne, Asier, Urko, Etxahun eta famelixakuon partez.



Zorionak, LIBE, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Musu asko etxekuen partez eta potolo- potolua Anerrek bialdutakua.



Zorionak, JUNE, astelehenian 10 urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IKER, haraiñegun 4 urte bete zenduaz-eta! Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, ANE, hillaren 14an 10 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat Malen eta famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN, martitzenian 11 urte egin zenduazelako. Etxekuen eta, batez be, Hiarten partez.



Zorionak, OIER (hillaren 14an 5 urte) eta amatxo MARI JOSE (16xan), zeuen urtebetetzian. Ondo-ondo ospatu! Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON, gure etxeko txikixak atzo 2 urte egin zittuan-eta! Aitta, ama, aitxixa, amama eta, batez be, zure arreba CLAUDIAren partez.



Zorionak, IBAITXO, zure lehelengo urtebetetzian. Eta baita osaba JAVI be, 35 urte egittiagaittik! Musu pillua etxekuen partez!! Maitte zaittuegu!!!



Zorionak, JON, zure 11. urtebetetzian. Musu haundi bat zure famelixaren partez. Ondo pasa, txapeldun!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

10ean: 22:30 (2 aretoa)

11n: 20:00

12an: 20:30

"C'est la vie!"

Zuzendaria: Eric Toledano



(2 ARETOAN)

10ean: 17:00, 19,45, 22:30 (1)

11n: 17:00, 20:00

12an: 20:30

"Tres anuncios en las afueras"

Zuzendaria: Martin McDonagh



(ANTZOKIAN)

10ean: 17:00, 19:45, 22:30

11n: 17:00 (1 aretoa), 20:00

12an: 20:30

"Cincuenta sombras liberadas"

Zuzendaria: James Foley



(ANTZOKIAN)

10ean: 17:00 (2 aretoa)

11n: 17:00 (EUSKERAZ)

"Maya Erlea. Ezti-jokoak"

Zuzendaria: Noel Cleary



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Jardñeta kalean. 2 logela. Eguzkitsua, balkoiarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 99.000 euro. Tel. 659-088244.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732.
- Etxea salgai Ubitxan. 2 logela. Igogailua behetik (0 kota). Berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Toki lasaia. 122.000 euro. Tel. 663-070757.

1.2. Errentan

- Amañan estudioa edo logela (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin) hartuko nuke alokairuan. Tel. 674-277661. Cristina.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 674-930223.
- Pisia alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Jantzita. Ez da animaliarik onartzen. Tel. 653-747499.
- Hiru lagunentzako gela behar dute Eibarren errentan. Tel. 652-667788.
- Pisu baten bila nabil konpartitzeko, Eibarren edo inguruan. Neska euskalduna naiz eta Eibarren lan egiten dut. Tel. 606-385144 eta 646-418190.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai J.A. Gisasola kalean (San Pion), kale mailan. Tel. 610-405146.
- Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiekin: koadro elektriko, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

3.2. Errentan

- 33 m²ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 460 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.
- Garaje itxia alokagai Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 629-889465.
- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-995976.
- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277173.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-965130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera moduan. Autoarekin eta erizain tituluduna. Tel. 650-455685.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-026510.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 664-899227.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-768682.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan lan egiteko. Tel. 677-134181.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 665-274438.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-358896.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak eta 10 urteko esperientzia. Tel. 697-754174.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-9^o10861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauez edo ospitalean ere. Tel. 603-514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-170781.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277037.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-896989.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-123942.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-709366.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 677-324451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-324473.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-201935.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-265747.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Gizon enkofradorea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 667-059774.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-064084.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 652-430110.
- Mutila eskaintzen da automozio alorrean edo beste edozein arlotan jarduteko. Tel. 652-430110.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-180539.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-061103.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.
- Pintore txukuna eta arduratsua eskaintzen da. Tel. 642-275525. Asis.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaintzeko, garbiketarako... Tel. 665-257468.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-729445 eta 632-775652.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-482526.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-387305.
- Neska eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta ilepaindegian lan egiteko. Tel. 632-839617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Asteburuetan eta gauez ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako orokorrak egiteko goizez. Tel. 652-667788.

4.2. Langile bila

- Bertako emakumea behar da larunbat eguerditiik igande gauera eta baita jaiegun batzuetan emakume bat zaintzeko. Tel. 605-708393. Leire.
- Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneetik ostiralera, 07:00etatik 11:00etara. Izena emateko: umezainketa@gmail.com
- Kamarera/o euskalduna behar da. Tel. 634-277015.
- Laser depilazioan eta estetika aurreratuan espezializatutako enpresak estetikista behar du Eibarren zabalduko duen zentro-rako. Curriculumala bidali: rrrhh@tacto.es
- Emakumea behar da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneetik zapatuta. Tel. 677-553828.
- Estetikista behar da ilepaindegian batean. Esperientziarekin. Tel. 943-200700.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzan ikasitako ingeleseko tituludun neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen ditut: Matematika, Fisika, Kimika, Ekonomia. Talde txikiak. Goiz eta arratsaldez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomeziagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autoentzat. BEZ, garrailoa, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziakzioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentimendua ibilgailuaren finantziakzioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko dituzko ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearien baldintzen arabera. Kontsultatu itazu eskaintza, mantentimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

Berbetan



Euskera praktikatzeko eta elkarbizitzarako taldeak

Ahozko euskera hobetu nahi duzu?

Euskeraz hitz egiteko lotsa gainditu nahi duzu?

Hemen aukera:

parkean

kirola egiten

taberna batean...

Zuk aukeratu non eta noiz
Taldea jatorrak eta giro informala

Doan!

Informazioa: 943 20 09 18

Eta euskalduna bazara eta praktikatu nahi duenari lagundu nahi badiozu eman izena zuk ere!

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es